

1.997ko Santo Tomas eguna Bertsozaleari II. Omena, "Zapirain Anaiak" IX. Bertsopaper Lehiaketa

aurtengoan ere, hutsik egin gabe, Xenpelar Bertso Eskolak Santo Tomas egunean Bertso Jaialdia antolatu zuen. Urtero bezala, Zapirain anaien omenez burutzen den bertsopaper lehiaketaren sariak banatu ziren lehenik, ondoren Luis Gaztelumendi bertsozale sutsuari merezitako omenaldia egin zitzaion, eta azkenik bertso saioa egin zuten bertsolaritzaren historian hainbeste zeresan eman duten Jon Lopategi, Xabier Amuriza, Joxe Agirre eta Imanol Lakanok.

Lau Haizetarako Xenpelar Bertso Eskolak hamai-ka urte luze daramatza gure herrian bertsolaritza eta bertsozaleasuna sustraitzen eta zabaltzen. Bertatik herriko hainbat gazte, heldu eta zahar pasa dira, denek, euskaldunok hain berezkoa dugun hitzen jolas honekin euskaraz biziki gozatu dutelarik. Urteroko bertso ikastaroek bere fruituak eman dituzte iadanik, eta etorkizunari begira bertsolariak sortzea izango da Bertso Eskolaren helburua. Urtean zehar antolatutako bertso afari, kopla saio, eta abarretan eskolako ikasleek erakutsitako grinak, eta zergatik ez abilitadeak, bide zuzenenan goazela adierazten digularik.

Santo Tomaseko ekitaldira itzuliz, esan bezala, has-teko "Zapirain Anaiak" IX. Bertsopaper lehiaketa-ren irabazleak bere sariak jasotzera igo ziren OnBi-de zinemako taulara. Helduen mailan, 18 urtetik gorakoetan alegia, Andoni Otamendi izan zen irabazlea "Zurekin" bertso sortarekin. Bigarren pos-tua "Izar aztiei begira" izenarekin Jexux Mari Ira-zuk aurkeztutako bertsoek lortu zuten. Nikolas Zendoiak "Hogei urte dituen irrati zaharrari" jarri-tako bertsoekin Accesit saria eskuratu zuen.

Gazteen mailako bi sariak Ekaitz Goikoetxea bea-saindarrarentzat izan ziren, "Arrosa arteko arantza" eta "Lazkao Txiki" bertso sortei esker. Sari bana-keta bukatutakoan, bere emaztearekin batera, Luis Gaztelumendi bertsozaleak merezitako ome-naldia jaso zuen. Edurne, Arantxi eta Saioak bertso jarriak kantatu ondoren, lerro hauek idaztean gure artean ez dugun Pako Gastesik auresku bat dant-zatu zuen bere omenez. Ondoren Bertso Eskolako kide den Mikel Aginagak bertso bat kantatu zion eta azkenean Luis Gaztelumendi berak ere bertso pare bat kantatu zuen. Omenaldia amaitzearekin batera, bertso saioa hasi zen, Antton Kazabonen gidaritzapean, goian aipatutako lau bertsolariekin, gorabeherak gorabehera gerturatu zen entzulego-ak saio polit bat dastatu ahal izan zuelarik.



ARROSA ARTEKO ARANTZA

1.- Desio genuenez
haur bat ekartzea
ta behin gaudituz gero
lehenengo trantzea,
orain mugitzen dizkit
aurre eta atzea,
bertsoz azalduko dut
nire oinazea.

2.- Adats horaila eta
gorputza xarmanta
pauzaje pinpirina,
hizkera ausarta,
marimatxarda eta
zirikan aparta,
ainguru itxurako
deabru galanta.

3.- Sehaskaren burundan
ume arraiua,
bateko abarrotsa
besteko oihua,
gaueko amets eta
loen jostailua,
kuerdarik gabeko iratzargailua.

4.- Esakera hertsitan
hartzen du babesia,
"amatto ttosttailua
atta uauau beltza "
sarritan jarri arren
pentsa eta pensia,
zer nahi duen ulertzen
ez dago erreza.

5.- Hainbat bitxi ederri
botata begia,
"urttebetteketako
jantxi orlegia,
ollentxerottarako
xurezko xaldia ",
berekin joaten zait
soldata erdia.

6.- Afalorduan berriz
garbantzuak jaten,
goilarakadak geldo
ditu eramaten,
bera nigarrez ta ni,
jateko esaten,
gure etxean giro
ez dugu izaten.

7.- Umea pasiatzen
pasa dut arratsa,
"haur honek bai duela
aitatxoren antza ",
jakingo bazenute
Pepa ta Arantxa...,
noizbait izango duen
badut esperantza.

8.- Isuri ditudanez
majina bat malko,
pairatu ditudanez
une gazi franko,
arazoa lehenbailehen
konpondu beharko,
izena emango dut
haurtzaindegirako.

Doinua :Sastarretik hasita.
Egilea :Jexux Mari Irazu.
2. Saria.



ZUREKIN

1.- Jende zurrunbiloak
hain kale zabala
gainezka zuenean
sarritan bezala
bertan, ikusi zaitut
eta berehala...
pentsatu dut berriro
niretzat zinala.

Bertan, ikusi zaitut
eta berehala...
muxu batekin egin
dizut diosala.

4.- Sekretu denak argi
dira ilunean.
Biok bat egin dugu
zelai bigunean,
desioak bidea
eman digunean...
bukaera non dagon
ez dakigunean,
desioak bidea
eman digunean...
ta bidea desio
egin zaigunean.

7.- Ez dago altzorik ta
ez dago magalik
ez dago gu elkartzen
gaituen uhalik
jarri ditudanean
begiak zabalik,
ez baizaitut ikusi
alboan etzanik.
Jarri ditudanean
begiak zabalik,
ezin nuen sinetsi
amets bat zinanik.

2.- Traganera dugu
biok errepara
gazi eta gozotik
zuen errepara,
oroimen ederra!
bihotzen taupada!
nire beso goxotan
egokitu zara.

Oroimen ederra!
bihotzen taupada!
Mundu galduen bila
abiatu gara.

5.- Lehia aztu ta leial!
zenbat bide zidor!
baina denboraleak
barealdi zor.
Izarrezko izara
begira jeloskor
Hezur-mamitu dugu
zirrara betikor,
Izarrezko izara
begira jeloskor
gau txintaren ostean
eguna badator.

8.- Aurrean jarri zaidan
destinu ergela!
batetik, argia ta
bestetik, goibela.
Berriz dastatu ditut
lurruntzen zeudela
zure zaporea ta
izerdi umela
berriz dastatu ditut
lurruntzen zeudela
beti bezela baina,
inoiz ez bezela.

3.- Ezpainak ezpainari
lehen atximurka!
biok elkarren alde
ta elkarren aurka
sokarik gabe nahi dut
barrunbetan urka...
arriskuak arrisku,
amildu naiz surta
sokarik gabe nahi dut
barrunbetan urka...
hutsera iristeko
apurka-apurka

6.- Jakin ondoren zure
uhara non doan,
berriz izango zaitut
xarmaren gogoan.
Topatu geralako
jolasen soroan
hurbila ta urruna
elkarren ondoan.
Topatu geralako
jolasen soroan,
begi ditziratsuen
feraka zoroan.

EGILEA: Andoni Otamendi. HEL-
DUEN MAILAKO IRABAZLEA.

